ORDAINDUGABEKO BAIMENAK

| BAIMENA | ART | IRAUPENA | OHARRAK |
|---|---|---|---|
| Haurrak edo aniztasun funtzionala duten pertsonak edo bere kasa moldatu ezin duten pertsonak zaintzeko baimena. | 46-A | • Lanaldiaren zortziren eta erdiaren bitarteko murrizketa umeak 12 urte bete arte.<br>• Adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik | Aldia eta ordutegia zehaztea langileari dagokio.<br>Eskubide bera izango dute ezkontidea edo izatezko bikotea zuzenean zaindu behar dutenek, edo bigarren gradura arteko odolkidetasuneko eta ezkontza-ahaidetasuneko senideren bat, izatezko bikotearen ahaide odolkidea barne, adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik bere kabuz moldatu ezin bada eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu. |
| Ikasturte batean lanaldia murrizteko baimena. | 46-B | Herena eta erdiaren bitarteko murrizketa ikasturte osorako (irailaren 1etik abuztuaren 31 arte). | Gutxienez 5 urteko antzinatasuna.<br>Eskaera idatziz ekainaren 15a aurretik. |
| 15 eguneko baimena. | 46-C | Gehienez ordaindu gabeko 15 egun hartzeko aukera, txanda batean edo bitan banatuta. | 10 egun lehenago eskatu behar da.<br>Ezin da azterketa edo ebaluazio garaian eskatu. |
| Hiruhileko baimena. | 46-D | Urtean ordaindu gabeko hiruhileko baimena hartzeko aukera. | 3 hilabete lehenago eskatu behar da. |
| Titulu ofizialetako azterketak egiteko. | 49 | Beharrezkoa den denbora. | Egiaztagiria aurkeztu beharko da. |
| Partzialki ordaindutako baimena. (Urte sabatikoa). | 47 | Lehenengo 4 urteetan jardun osoan egingo du lan, 5. urtean lan egingo ez duelarik. | Gutxienez 5 urteko antzinatasun eduki behar da. Langileak, 5 urte hauetan soldataren %84 jasoko du. |